



UKRANIAR ERREFUXIATUEN ERROLDA

Ukrainako errefuxiatuen erroldatzea, [martxoaren 9ko PCM/169/2022 Agindua](#) BOEn argitaratzearen ondorioz. Agindu horren bidez, Ukrainako gatazkak ukitutako pertsonak aldi baterako babestea onartzeko prozedura garatzen da.

Nortasunaren edo ordezkartzaren egiaztagiririk aurkezten ez bada fitxa honetan ezarritako moduan, edo dokumentazio hori nahikoa ez bada, 2022-03-17ko bilkuran Erroldatze Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek emandako aldeko erantzunekin bat etorriz, **honako dokumentazio hau eskatuko da** Errenterian erroldatzeko.

- **Nortasuna egiaztatzen duten agiriak:** Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak Agindu horri jarraiki (2. eta 3. art.) emandako agirien bidez, eskabidea aurkeztu ondoren emango zaien behin-behineko dokumentazioa barne (eskabidea aurkeztu izanaren frogagiria).

Ukrainian bizi zirela ziurtatzen duten beste herrialde batzuetako herritarrak erroldatu ahal izango dira, baldin eta aurreko atalean adierazitako dokumentazioa aurkezten badute.

- **Adingabeen ordezkartza egiaztatzen duten agiriak:** aipatutako Aginduaren 2.4 artikulua xedatzen duena hartuko da kontuan: *“en el caso de los menores de 18 años que estén acompañados por algún adulto, la solicitud (de protección temporal) será presentada por la persona responsable de aquéllos”*. Beraz, erroldatzeko, nahikoa izango da Agindu horren arabera aldi baterako babes-eskaera aurkeztu zuen pertsona bera izatea eskatzailea.

Halaber, erroldatzeko bi gurasoen baimenik ez dagoen kasuetan, nahikoa izango da gurasoak edo eskaera egiten duen arduradunak [erantzukizunpeko adierazpen](#) bat sinatzea.